

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko azaroaren 13a / 268. zenbakia

- **BERTSOAK** Egoitz Eizagirre 03
- **HERRIKO KONTUAK** Ordenantza fiskal berriak 05
- **KIROLAK** Ainhoa Imaz irabazle Behobian 08
- **AIAKO BERRI** Edadetuak zaintzeko ikastaroa 11
- **IRITZIA** Onintza Aiestaran 18
- **HERRITARRA** Idurre Lizarralde 25



Iñigo Manterola:
berritu ala hil

Donostian ireki berri duen galerian patxadaz hartu gaitu artista oriotarrak. Sortzailearen gorabeherak barrutik erakutsi dizkigu.

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

ACTIVA **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeslari, 6 - Tel/Fax: 943 83 12 49
20809 ORIO

Kinikladenda- Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

**25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN**

azkue

Tf: 943 13 04 38

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

AMILIBIA
ENTZIELAK, S. L.

kirol partuetan proiektu
eta instalazioak

guri maizko ikhaketarako
arrazun-entziak

Olaskeagacjia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

HAIZE BERRI
itahama-jatetxea-kaleetago

Plater konbinatuak,
bekatak,
hamburgerak,
rulladak,
eguneko menua...
eta etxera eramateko zerbitzua!

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Joana Murgiondo
Aseguru-agenta

ASEGURUAK

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Nahikari

HAUR BENDA

Amantze Kalea, s/5
38200 - Orio
Tel: 943 83 26 30
www.nahikari.es

Lizaso
dekorazioa

Rusko Gudari, 48
Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 84 97 16

jaletxea

logelak

gazteategi

Elkano auzoa
943 13 16 06

KOLON TXIKI
antzerkietako jatetxea

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

PERTSIANAK

ALUMINIO, PVC
Venezianak
Motarrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

edertegia

ANTILLA
jaletxea

Nahikari Kalea, 2 - Tel: 943 83 26 30

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 67 52
e-mail: zaldua@telefonosiguros.com

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4
TEL: 943 83 16 57

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzako asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldeaPat Cowie, Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**

Onintza Aiestaran eta Maider Lasa

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzailakEkiñe Miralles eta
Goiuri Unanue (Orio)
Ainize Sayago (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esaneren edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berremen
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Eta somaliarrak zer?

IKER GURRUTXAGA

1

Alakranaren bueltan
zenbat buruhauste,
kontua luze doa,
makina bat aste.
Arrantzaleak aske
utziko al dituzte?
Erraza izango denik
etzazue uste.

2

Baina pentsa dezagun
pixkat Somalian,
Bertako herritarrak
daude miserian.
Jatekorik ez eta,
denaren premian
ta gu arraia kentzen
eman beharrian.

3

Dirurik ezin gasta
han teknologian,
ikasteko aukerarik
ez da Somalian.
Lagundu dezagun ba,
guk lehendabizi han.
Hau dena konpontzeko,
ya, ziztu bizian.



WIKIMEDIA

PUBLIZITATE PREZIOAK**IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritza

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Elkartasun Tonbola

Orioko Herri Ikastolako DBH 4. mailako ikasleak gara. Jada azaroan gaude eta horrek Gabonak gerturatzen ari direla esan nahi du. Urtero bezala, abenduaren 24an Ikastolako ikasle zaharrenok *Elkartasun Tonbola* antolatzen gara. Egun horretan bildutako dirua bi zatitan banatzen dugu: alde batetik, irabazien erdia gure ikasketa bidairako izaten da, eta beste erdia Ruandara bidaltzen da kantatzen lortutako diruarekin batera.

Baina, hori egin ahal izateko, bertan banatuko diren sariak behar ditugu eta zuen laguntza ezinbestekoa da. Aldez aurretik, jakinarazi nahi dizuegu laster pasako garaia herriko komertzioetatik oparri eske eta, beti bezala, zuen laguntza eta adeitasuna izango ditugula badakigu eta mila esker.

Komertzioez gain, edozein herritarrek ere aportazioren bat egin nahiko balu, jakin dezala hura ere gustura hartuko dugula.

Besterik gabe, tonbolan elkar ikusiko dugulakoan, mila esker guztioi.

IKASTOLAKO
DBH 4KO IKASLEAK

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Lanarari ekiteko garaia da!

Urriaren 27ko udalbatzarrean, hondakinen inguruko bi mozio onartu zituen Udalak. Ezker abertzalearen babesarekin errausketaren aurkako plataformak aurkeztu zuena lehenengo eta Aralarrek aurkeztu zuena, oso antzekoa, bigarrenik.

Luze eztabaida genezake bien arteko desberdintasun txiki, baina oso garrantzitsuen (5. edukiontzia) balio (gabetasun) az. Nahiago dut, ordea, adostasunez jardun, hauek bai, handiak direlako. Besteak beste, honako

hau onartu zuen Udalbatzarrek:

1.- Orion sortutako hondakinik erraustegira ez bidertzatzea.

2.- Hondakinen bilketa selektibo integrala martxan jartzea.

3.- Aldundiari errauste planta egiteko asmoa bertan behera utz dezan eskatzea.

Garrantzitsua da Udalak hartu duen erabakia, baina ezin dugu lana bukatutzat eman, hasibesterikez da egin eta. Argi daukat erraustegia gelditzeko modu bakarra bilketa selektiboa benetan integrala izan dadin lortzea dela. Areago, bilketa integrala balitz, ziur nago gaur errausketa

defendatzen dutenek ere ez luketela bideragarri ikusiko.

Horren haritik bildu zituen errausketaren aurkako koordinadorak 35.000 sinadura, tartean oriotarranak: Gasteizko Parlamentuak zabor ontzira bota berri dituen 35.000 sinadura, baina guztion inplikazioarekin erraustu ezingo dituzten 35.000 sinadura!

Animo eta lanera!

EGOITZ EIZAGIRRE

Ados jarri, mesedez!

Ez da inorekin haserretzearen, baina bada garaia tabernariak oporretarako ados jartzen hasteko.

Lehenengoan, ez dakit zehazki zein egunetan zen, zerbeza bat hartzera atera kalera eta herri sarrerako ia taberna denak itxita zeuden: Bordatxo, Kolon Txiki, Aterpe, Errusta, Kalakari... denak itxita. Eskerrak Unar eta Tragoxkako Josebari ez zaion otu garai honetan ixtea, baina urtarrilean egingo du jai.

Badakit urte sasoi honetan ez dela negozio handirik egin, baina noizean behin bezeroez akordatzea ere ez dago gaizki.

PAULANERZALEA



Konpondu, mesedez

Kanpoan bizi den oriotarra naiz eta Orioko Salatxon etxea dut, oporraldietarako. Zaharra da, baina inoiz ez da zaharkitua geratzeko arriskuan egon, orain dela zortzi urtera arte.

Zortzi urte pasa dira Salatxoko pasabidearen egoera txarra dela eta aldamiorekin sendotu zutela, baina ordutik ez da arazoari irtenbidea emateko beste ezer egin.

Aldamioak jarri eta berehala pitzadurak atera ziren etxe-ko paretetan eta, orain gutxi etxea osorik berritu badut ere, berriz atera dira eta etxe-ko atea ez da behar bezala ixten.

Udalari askotan eman diot egoeraren berri eta konponduko dutela esaten didate beti. Baina urteak aurrera doaz eta aldamiok hor jarraitzen du, norbaiti gainera erori eta ezbehar larriren bat gertatu arte.

Ez dut eskatzen Salatxo botatzea, konpontzea baizik, herriko txoko esanguratsu eta famatuenetakoa baita; eta merezi du mantentzeak.

JUAN PEÑA ELORRIAGA

DENAK ADOS JARRITA, EZKER BATUA IZAN ZEN KONTRAKO BOTOA EMAN ZUEN BAKARRA

2010erako ordenantza fiskalak onartu ditu Udalak

Lana serio egin eta azaroaren lehen egunetan ados jarrita, hilaren 10ean egindako batzarrean onartu ziren datorren urterako ordenantzak.

Bi batzorde informatzaile egin zituzten urriaren 27ko Udaltzarren ohiko bilkuran ordenantza fiskalaren puntua beste baterako utzi eta gero, gaia oraindik behar bezala eztabaidatu gabe zegoelako. Azaroaren 5ean eta 9an ados jarri ostean, 9an bertan iluntzean egin zen ez-ohiko Udaltzarrean onartu zituzten 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izango diren ordenantza fiskalak.

ORDENANTZA BERRIAK

Zabor biltzeari eta garbitasunari dagokionez, euro bat eta 3 artean garestituko dira tarifak.

Hondartza inguruko TAO sistemaren epea maiatzaren 1ean hasiko da eta irailaren 30ean bukatu. Ordutegiak lehengo bera izaten jarraituko du, 10:00etatik 20:00etara, eta euro bat ordaindu behar da kotxea aparkatuta dagoen orduko.

Udalkanpinetako tarifek %4 egingo dute gora; musika eskolakoek, %3; eta kiroldegikoek, %5.

Azurza etxeko tutoretzapeko apartamentuetako alokairuaren prezioa berdin utzi dute eta, gainera, hobariak jasotzeko aukera izango dute, pentsioaren arabera. 750 euro arteko pentsiodunek 200 euroko hobaria jasoko dute; 751tik 1.100 eurora bitartekoa jasotzen dutenek, 100 eurokoa; eta hortik aurrerakoek, ezer ez.

Orain dela gutxi martxan jarri den Iturriaga jauregiko Donejakue Bidearen inter-



2010eko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean zerga eta tasa berriak.

KARKARA

pretazio zentroko prezioak ere finkatu zituzten. 10 urte arteko umeentzat, jubilatuentzat eta pentsionistentzat 1,5 euro balioko du sarre-rak, helduenak 2 euro eta 15 lagunetik gorako taldeentzat euro bat pertsonako.

Ibilgailuen zergari dago-

Azurza etxeko tutoretzapeko apartamentuetako alokairuaren prezioa izoztu egiten da, hau da, berdin jarraituko dute eta, gainera, hobariak jasotzeko aukera izango dute

kionez, salbuespena lortzeko %33ko elbarritasunaren eta garraio publikoak erabiltzeko ezgaitasunaren agiriak aurkeztu beharko dira.

Udaletxeko teilatupeko aretoa erabiltzea, orain arte debaldekoa bazen ere, 19,75 euro ordaindu beharko da

Udaletxeko teilatupeko aretoa erabiltzea debaldekoa bazen ere, 19,75 euro kostako da orain eguneko; baina herritarrek doan erabiliko dute orain arte bezala

eguneko eta, egun bat baino gehiago behar izanez gero, 13,45 euro eguneko. Hala ere, herritarrentzako, bilerak eta egiteko, doan izaten jarraituko du.

EZKER BATUAK EZETZ

Iñaki Garcia Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia izan zen ordenantza fiskalaren kontra bozkatu zuen bakarra, beste guztiak aldeko agertu baitziren eta, erabakia arrazoitzeke, zabor biltzetaren tasaren igoera gehiegizkoa iruditzen zaiola esan zuen. Bestalde, kexu agertu zen kanpinetako tarifak %4 igotzeagatik. Bere ustetan, kanpina motorretako bat izan daiteke herriko beste sektore batzuentzako eta tarifak jaisteak izango litza-teke egokiena, jendea erakartzeko.

KALE BATZUETAN GOIZALDEKO 03:00AK ARTE IRAUN ZUEN ITZALALDIAK

3 orduz ilunpean geratu zen Orio txinparta baten erruz

Azaroaren 4an, Itzala taberna azpiko estoldan sortutako txinparta batek eragin zuen Orio argindarrak gabe geratzea. Teknikariek ordu batzuk behar izan zituzten arazoa konpontzeko.

Azaroaren 4an, asteazkenarekin, iragarrita zegoen bezala, oso eguraldi txarra egin zuen. Euriak eta haizeak gogor jotzen zuten eta itsasoa ere zakar zebilen, 6tik 8ra metro bitarterainoko olatuekin.

Kontua da guzti horrek eragina izan zuela Orioko estoldetan; zehazki, Itzala tabernaren azpian dagoen an gertatu zen ezbeharra. Urak eraginda, argindarraren kutxa batean txinparta gertatu zen eta horrekarri zuen argi-etena.

16:00ak aldera gertatu zen hori, baina herritarrak ordu askoz egon ziren ilunpean, teknikariek arazoa konpontzen zuten bitartean.

Lehenago itzultzeko keina behin baino gehiagotan egin bazuen ere, 19:00ak aldera etorri zen argia, baina ez zen herri osora iritsi. Arrantzale eta Abeslari kaleetan eta Erriberako auzoan goizaldeko 03:00ak arte ez zuten indarririk izan etxeetan.

JENDEAREN KOMERIAK

Ez da lehenengo aldia gertatzen dela aurten, gainera, eta haserrea sortu zuen herrian. Halako orduan gertatuta, jen-



Eguraldi txarragatik gertatu omen zen itzalaldia eragin zuen txinparta. KARKARA

Iluntzean, kalean ibiltzeko, linterna eskuan zutela atera behar izan zuen jendeak etxetik

de asko gelditu zen afariak-eta prestatu ezinik egun horretan; igogailuak geldirik, etxeraino ezindua bizkarrean eraman

behar izan zuenik izan zen; garajeetako atek eta telefonoak ere ez zebiltzan; kiroldegira joan zenak jai izan zuen; dendariantzat ere ez zen arratsalde erraza izan argirik gabe moldatzeko; bingo partida jokatu gabe gelditu ziren Zaharren Babes Lekuak; eragileen eta koadrilen bilera ere Iturbide kalean egin behar izan zuten kultur etxean argindarrak ez zelako... Kalean linternarekin ibili behar izan zuen jendeak, kontu handiz.

LABUR

SANIKOLASAK Danborrada

Sanikolasak ostiralean hasi arren, larunbatean, abenduaren 5ean, egingo da txupinazoa eta, horrekin batera, danborrada antolatuko da. Festa Batzordeak deialdia egin du, parte hartu nahi dutenek izena emateko. Horretarako, kultur etxera jo behar da, telefonoz nahi bada 943 13 44 09ra deituz edota bertara azalduta, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

UDALA

Txostenak aurkezteko

Kultura, gazteria, ingurumen eta aisialdi jardueri 2009ko diru-laguntzen %75 ordaindu zitzaizen urte hasieran. Talde bakoitzari falta zaion %25a jasotzeko, urteko txostenak udaletxean utzi beharko dituzte eta abenduaren 14a izango da horretarako azken eguna.

BERTSOLARITZA

Gurruk Tolosan saioa

Iñaki Gurrutxagak azaroaren 14an, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdian abestuko du Tolosako Usabal kiroldegian. Saioa ikusteko sarreak takillan lortu beharko dituzte interesatuek.

ERROTA

- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

H *****

Tfnoa: 943 83 54 65

ZAPATA KONPONKETAK

Larunegutik 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larritartetik 09:00 - 13:00
Martxoaren 13a, Orio

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

AZAROAREN 9AN HASI ZIREN ESKOLEKIN KULTUR ETXEAN ETA LASTER IKASTOLARA JOANGO DIRA

30 ikasle hasi dira esperientzia eskolan

Azaroaren 2an aurkeztu zuten 3. esperientzia eskola Orioko udaletxean. Jon Redondo alkatea, Vicente Rodríguez Mugabeko ordezkaria, Eusko Jaurlaritzako Jose Luis Elorza eta Iñaki Beraza ikastolako zuzendaria izan ziren, ikasle izango direnak eta ikasle ohiez gain.

Ekitaldia goizeko 11etan hasi zen eta Vicente Rodríguezek hartu zuen hitza eta, behin eta berriz, emandako laguntza eskertu zien erakunde publikoari, Kutzari eta Ikastolari. Atzetik Jose Luis Elorza Eusko Jaurlaritzako Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariak hartu zuen hitza, eta adinduek uste baino gehiago dakitela azpimarratu zuen. Jon Redondok nagusiek dituzten balioak azpimarratu zituen, gaur egungo gazteek galdu egin dituztela adieraziz.

Noemi Ostolazaren atzetik Iñaki Berazak hitz egin zuen, ikasleen eta adinekoen arteko trukaketak ikastolari aberastasun handia eman diola nabarmenduz. Mari Jose Gonzálezek, Farfararen izenean, berek hasitakoa bul-tzatu izana eskertu zien erakundeetako kideei.

Hizketan azkenak ikasle ohiak izan ziren, eta berriz errepikatzeko gogoia zutela eta kurtso berria hasteko desiatzen zeudela esan zuten.



Lehen eskolak kultur etxean egin dituzte baina ikastolara igaroko dira laister.

KARKARA

Ekitaldiaren amaieran aurreko kurtsoan, behinik behin, eskolen %80ra joandakoei diplomak eman zitzaizkien.

AURTENGO ESKOLAK

Eskolak hasi dira, dagoeneko, eta 30 ikaslek eman dute izena bertan, gehienak emakumeak. Lehen saioak kultur etxean egin dituzte, baina laister ikastolara pasako dira.

Arritxu San Sebastian koordinatzaileak esan digunez, lehen hilabeteen memoria tailerra egiteaz gain, eko-

nomiaren inguruan jardungo dute.

Gai asko landuko dituzte maiatza bitartean; esaterako, erlaxazioa, Gipuzkoako historia, komunikabideak edota ariketa fisikoen inguruan jardungo dute. Irakasleen artean, esaterako, Urola Kostako Hitzako zuzendaria izandako Gari Berasaluze egongo da. Azken hilabetea praktikoagoa egingo dute eta proiektua gauzatu.

Hasiera batean joan den urtekoari helduko diote eta belaunaldien arteko espe-

Aurtengo eskolak hasi dira dagoeneko eta 30 ikaslek eman dute izena bertan, gehienak emakumeak

rientziak elkarren artean partekatzea izango dute helburu.

Eskolen %80ra joaten direnek diploma eskuratuko dute.

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aria Lortxundi 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan

RAMIRO
argazkiak
www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

Automóviles
ZARAUTZ
CITROËN ZERBITZU OFIZIALA
ZARAUTZ. TEL: 943 13 13 50



Ainhoa Imaz, iaz, Orioko sansilbestrean.

AINHOA IMAZ

ORIOKO BOTAPA BATUKADA TALDEA GIROA ALAITZEN ARITU ZEN

Ainhoa Imaz aurrena Behobian junior nesketan

Lasterketa bukatu zuten 14.918 korrikalariren artean, 72 oriotar eta 10 aiar izan ziren.

Igandean jokatu zen Behobia-Donostia lasterketa klasikoaren 45. edizioa eta korrikalariak izan ziren protagonista, horrelako eguraldi petralarekin lasterka aritzeko erakutsitako grinagatik.

14.918 kirolari heldu ziren helmugara eta Salamancako Rafa Iglesias izan zen lehen sailkatua, lau aldiz jarraian irabazle izandako Chema Martinezen aurretik. Emakumezkoetan, berriz, Maria Jose Pueyok hartu zien aurrea beste.

Orioko Ainhoa Imazek eman zigun poza junior nesketan podiumeko koska gorenera igo zenean, ordu bete, 33 minutu eta 12 segundoko denborarekin.

Faltan izan genituen gure

izen handiak, Kamel Zianik, Hossain Kaanachek, Nerea Amilibiak eta Joxean Iglesias ez baitzuten parte hartu. Hala ere, 72 oriotar eta 10 aiar izan ziren bertan korrika.

Gainera, Orioko Botapa batukada taldeak giroa alaitu zuen beren danbor erritmoekin, antolakuntzak hala eskatuta.

ORIO TAR GEHIAGO

Jokin Redondo izan zen oriotarren artean lehena ordu bete, 13 minutu eta 45 segundoko denborarekin eta sailkapenean 170. izan zen. Nabarmenezkoa da Jabier Ruizen lana ere, beteranoen kategorian, ordu bete, 14 minutu eta 31 segundorekin, bigarren oriotarra izan baitzen. Jon Itsaso, min hartuta, eta Manex Barrenetxea izan ziren azken oriotarrak eta 2 ordu eta 7 minutu behar izan zituzten lanak bukatzeko.

Eguraldi petralari aurre eginez, lasterka egiteko grina erakutsi zuten korrikalariak ibilbide osoan

AIARREN SAILKAPENA

Hamar aiarrek zeharkatu zuten helmuga eta Mikel Azkue izan zen horietatik azkarrena. Ordubete, 21 minutu eta 54 segundo behar izan zituen eta 1.138. izan zen sailkapen orokorrean.

Emakumezkoetan, berriz, Ixaskun Carton izan zen parte hartu zuen aiar bakarra. Iker Britekin, senararekin, batera aritu zen eta 2 ordu, 6 minutu eta 45 segundotan egin zuten ibilbidea.

LABUR

PILOTA

Galarraga finalerdietara

Azken urteetan bezala, Eneko Galarragak Gipuzkoako Txapelketako finalerdia jokatu du Renobalesekin, sailkapen fasean bigarren geratu eta gero. Orain Hernaniko bikotearen aurka jokatu beharko du iazko titulua berritzeko bidean.

Bestalde, beste hiru txapelketetan final laurdenetan dago pilotari oriotarra. Alde batetik Egiako txapelketan, Mendizabal aurreko koadroetan duela, azaroaren 17an ligaxkako azken partida irabaztea geratzen zaio finalerdian izateko. Diario Vasco txapelketa garrantzitsuaren koadroan ere igande honetan sartuko da Yoldilagun duela, Egiakoa baino bi egun lehena, hilaren 15ean. Bietan Armendariz eta Gorrotxategi izango ditu aurrez aurre. Zaldibarko txapelketan, bestalde, hilaren 26an estreinatuko da.

SASKIBALOA

Elena Zaldua Gipuzkoako selekzioan

Elena Zaldua, Orioko Ikastola ZKE taldeko jokalaria, Gipuzkoako selekzioarekin jokatu izan zen azaroaren lehen asteburuan. Arabarrei irabaztea lortu bazuten ere, Bizkaiaren aurka galdu eta bigarren izatearekin konformatu behar izan zuen Elenak.

Bestalde, bere taldea, ikastolakoa, alegia, partida guztiak irabazita lider da. Aurrez bat galdu zutela esan genuen arren, federakuntzak partida atzeratzea erabaki zuen, oriotarrek partidura ez azaltzeko emandako arrazoia onartuta.

FUTBOLA Puntuak banaka gehitzen

Aspaldiko denboraldi txukunena egiten ari badira ere, irabaztea ia ezinezkoa ari zaie egiten Orioko futbol taldeko mutilei.

Jaime Coladoren taldeak banaka gehitzen ditu puntuak, 9 partidetatik 7 berdindu eta bakarra besterik ez dute irabazi, eta horrela 10 puntu soil lortu dituzte. Dena den, hirugarrenetik 6 puntuko aldeak baino ez ditu aldentzen. Etxean hartuko duten hurrengoa Elgoibar liderra izango da, hilaren 21ean.

Jubenilak ere hala moduz dabilta, bost puntu besterik ez dituzte batu eta azken hiru postuetan berdinketa dute, sailkapenean aurreratuenaren herriko taldea den arren. Asteburu honetan Anaitasunaren aurka jokatuko dute Mendibeltsen.

Azkenik, 5. dira Orioko neskek. Azken partidari Zumaia taldearen aurka berdindu ostean, 5 puntu dituzte Joseba Manteolaren neskek. Datorren partida Zumarragako Argixaon jokatuko dute asteburuan.

HARMAILATIK

New York, New York

Jende asko izaten da New Yorkeko maratoian; 40.000 plaza izaten dira, eta 9 europarretik batek izaten du bertan izateko aukera. Zozketaz egiten da, marka minimorik ez bada, dortsala lortzeko bidea eta nik 40 urtetik gorakoetan minimoa eginda eskuratu nuen nirea.

Antolakuntza paregabea da hango maratoiak duena. Hiru errail jartzen dituzte kolore banarekin, eta gero multzo txikiagoetan banatzen dute jendea, dortsalaren arabera.

Nahikoa urduri iritsi nintzen irteerara. Izan ere, lasai jaiki ginen karrera bezperako gaua eman genuen hotelean. Bapogosaltzen ari ginen bitartean telebista piztu eta ordurako irteeran zegoen jende pila ikusi genuen. 8:30ean genuen taxiarekin hitzordua, baina berandu iritsi zen, hamar bat minutu edo. Hori nahikoa ez zela, zubia itxi zuten eta auto-pilaketak sortu ziren eta leihotik begiratzearan zubitik aldentzen ari ginela ohartu ginen. Gutako batek txoferrari zubira gindoazela esan zion eta hark barkatzeko, ferryra gindoaze-



JOKIN AMILIBIA
KIROLARIA

ez dakienak, antolakuntzako bolondresen aurpegiari begiratu behar izaten dio, gaztekeraz dakien ala ez jakiteko.

Irteerara 4 minutu falta zirela iritsi nintzen, nola hala berotu eta, zubia gurutzatuz, irteerara. Zorte txarra, zubipetik joan behar izan nuen.

Lasterketa zoragarria izan zen: Brooklyn, Queen's, Manhattan, Bronx, Harlem... guztiak igaro eta Central Parken amaitu. Gospel kontzertuak edonon eta, halako batean, Rocky filmeko abestia entzun nuen, motibatu ninduen, baina hankak erlojuaren errit-mora neramatzen; bukatu nahi banuen, hala joan behar.

Juduen auzoan ez zen festa girorik nabari, bakoitzak berean jarraitzen zuen bertan, emakume bat bere umea gurgildun aulkian hartu eta lasterkariaren artean errepidea gurutzatzen ikusi zitekeen, esaterako. Hari berdion zion gertatzen ari zenak.

Lasterketa bukatu, arropa hartu eta kitto. 4 egun New York bisitatzeko. Hurrengo egunean sailkapena *New York Times*en begiratu eta lehen orrian nintzen. Orain hiru ordutik jaista falta da.

Zoragarria izan zen, Brooklyn, Queen's, Manhattan, Bronx, Harlem... guztiak igaro eta Central Parken amaitu

la uste zuela-eta: ferryra korrika egiteko arropak jantzita, alajaina! Zubira iritsi eta nire arropa uzteko kamioia aurkitu behar. Ingeleseztutik ere

IZARRA BIDEOA

Plan **RENOVE** 10% ARTEKO DESKONTUAK

AZKEN EGUNAK

ROOMBA 349€

KRUPS 99,99€
129,99€

TELEFUNKEN 399€

eta askoz gehiago!

ORDAINDU 10 HILABETETAN INTERESIK GABE!

Aritzaga 15. Orrio **TIEN 21** 943 83 38 81

ALTXERRI Kanta eraberritua

Asteburuan, eguerdi eta gauetan, menu bereziak

94383 0762

INDO Garraio frigorifikoa NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

MARTA PINEDA | ARTISTA-DISEINATZAILEA

“Lehiaketek animatu egiten naute sortzen jarraitzeko”

Ia kasualitatez etorri zen Aiara, eta oso gustura bizi da hemen, Sevillako zurrunbilotik urruti. Aurten, lehiaketa bat baino gehiagotan hartu du parte berak sortutako lan eta diseinuekin.

Betidanik izan duzu artista sena?

Bost urte nituela irakasle batek esaten zion amari: Neska honek Arte Ederrak ikasi behar ditu. Baina aita sendagilea dut eta biologian hasi nintzen, nahiz eta beti sortzen jardun: nikiak edo zapatillak margotzen, altzariak diseinatzeko, egiten, apaintzen, saltzen... eta, azkenean, Arte Ederrak egin nituen eta diseinura eta fotografiara bideratu. Zaila da bizimodua ateratzea, baina harrapatu egiten nau, ezin dut arte edo diseinutik ihes egin! Kontuz! Ez naiz ametsetan bizi: lan egin nahi dut, ahal bada dudana gaitasuna garatuz. Horregatik jo nuen diseinua aldera: sorkuntza eta praktikotasuna uztartzen dituelako, eguneroko zerbaiti irudi berezi bat ematen diozu.

Lehiaketa askotan hartu duzu parte. Zertarako?

Animatu egiten nauelako sortzen jarraitzeko. Lehiaketa edo erakusketa baterako finalista edo aukeratua izateak badu garrantzia, ezagutzen ez nautenek estimatu baitute nire lana. Erraztasuna ematen badidate obra sortzeko, eta premia dirutan eman, lan egiteko modu bat bada. Irabaziz gero, zer esanik ez! Udan lehenengo saria irabazi nuen alfonbra baten diseinuagatik, nazioarteko *Carpetvista* lehiaketan. Orain fabrikatuko dute eta horrek bete egiten nau. Beti hobetu



Martak dio ez dela artista, baina sorkuntzak nahitaez harrapatu du.

KARKARA

Saiatzen naiz optimista izaten, bestela, dagoeneko, etsita nengoke

nahian nabil, eta lehiaketen ondorioz gehiago analizatzen dut, zer falta zaidan bilatu, teknika berriak probatu...

Nolako obrak eraman dituzu lehiaketetan?

Oraintxe ikusgai dagoena, esaterako, *Reziklarte* erakusketan. Klean ikusi ditugun papera edo plastikoak errezi-

Zerbait sortu nahi dut jendeak dituen sentsumen guztietara heltzeko

klatzeko ontzi handi horietako bat pintatu behar zen, jendea erreziklatzeko sentsibilizatzeko. 64 zirriborroetatik nirea aukeratutako bat izan zen, eta astebete eman zigiten pintatzeko. *Buertaka* du izena eta erreziklazeari esker naturaren zikloaren birak jarrai dezakeela irudikatua nuen. Erakusketa ere herriz

herri bueltaka dabil, eta Lasartan egongo da ikusgai nire ontzia 17a arte, eta guztiak Erreterian azaroaren 24tik 29ra.

Gueñesko *El diario para la novia* lehiaketan ezkontzarako soinekoa sortu nuen egunkariko eta zetazko paperarekin. Kartelak egin nituen Azpeitiko antzerki topaketarako eta Madrilgo emakumeen aurkako biolentziaren kontrako kanpaina baterako...

Non dituzu lan guzti horiek?

Guztiak blogean ditut jasota: www.martapineda.blogspot.com. Batzuk forma digitalean daude soilik, eta ni naiz irudi horien jabea. Desfilean jantzi zuen lagunari oparitu nion soinekoa. Erreziklatzeko ontzia? Tristetu egiten nau pentsatzeak txikitu egingo dutela! Zergatik ez parke batean jarri, berriro erreziklatzeko, umek jolasteko.

Sorkuntza bizimodua izatea nahi duzu?

Saiatzen naiz optimista izaten, bestela dagoeneko etsita nengoke, baina ezinezkoa bada, erreziklatuko dut nure burua! Bila nabil beti.

Oztopoak albo batera utzita, nolako obra egingo zenuke?

Iaz masterra egin nuen marketingean arteari eta diseinuari enfoke enpresariala gehitzeko. Baina nire ametsa erakustoki erraldoietan pabiloia sortzea da, hasi eta buka: mezua, irudia, soinua, giroa, usaina... guztia, jendeak senti dezan nik Sevillako Munduko Erakusketako pabiloi batzuetan sartzean sentitu nuena. Jendeak dituen zentzumen guztietatik, eta ez bakarrik begietatik, nik sortutakoarekin konektatzea. Hori egin ahal banu!

IKASTAROA ETA HITZALDIA ERE ANTOLATU DITUZTE ABENDURAKO

Edadetuak zaintzeko ikastaroak antolatu nahian

Etxeko zaharrenen zaintzara bideratutako diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatuko dituzte epe laburrean eta, aurrerantzean, beharrezko izango da formazioa izatea. Horregatik, ikastaroak antolatu nahian dabil elkarte bat.

Solidaridad Intergeneracional Espainiako edadetuei eta beren familiei laguntzeko irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Nekazari eta Abeltzainen Koordinakunde espainiarraren (COAG) laguntzaz landa inguruneke udalerrietara Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa zabaltzeaz arduratzen da, beste zeregin batzuen artean.

2009an, Euskal Herriko Nekazari Elkartearekin (EHNE) batera, Gipuzkoan Dependentsia legeari buruzko informazio hitzaldiak ematen hasi dira, izan ere, familia zaintzara bideratutako diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatuko dituzte epe laburrean eta, aurrerantzean, beharrezko izango da formazioa izatea.

Hori dela eta, informazioa banatzeaz gain, dependentsia egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat 50 orduko kurtsuak ari dira antolatzen.

Urtarrilerako, iadanik, bi talde osatu dituzte: bata gaztelera, Tolosan, eta bestea euskaraz, Lizartzan, eta berdin egin nahi dute Aian, otsailerako, euskaraz edo gaztelera. Horretarako, hamar laguneko taldea osatu behar da, beraz, harremanetarako hainbat telefono jarri dituzte: 943 13 11 44 Elena, gizarte laguntzailearena, 943 81 39 28 Edurne edo Oihana, *Solidaridad Intergeneracional*eko gizarte teknikariena.



Otsailerako antolatu nahi da ikastaroa Aian.

KARKARA

Dependentsia egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat 50 orduko kurtsuak ari dira antolatzen

ABENDUAN AIAN IZANGO DIRA Elkarte berak hainbat ikastaro eta jardunaldi antolatu ditu eta Aian ere egingo direla esan digute.

Abenduaren 3an, ostegunarekin, *Informatika mundura sarrera* jardunaldia egingo da, goizeko 09:00etatik 13:30era. Ikastaroa euskaraz eta dohainik izango da, baina alde zuzenetik eman behar da izena kultur etxean.

Abenduaren 16an, asteazkenean, mendekotasun lege

berriari buruzko hitzaldia egingo da, 16:30ean udal-txean. Hori ere euskaraz eta doan izango da, baina, parte hartzeko, nahikoa da egun horretan bertara agertzearekin, sarrera libre baina.

LAGUNTZEKO PREST

Antzeko ekintzak antolatzeko interesa duen landa inguruneke edozein udalerrik edo auzokolabara dezake *Solidaridad Intergeneracional* elkartearekin, baita laguntzeko prest dagoen edozein herritarrek ere eta, horretarako, 943 81 39 28 telefonoa dute martxan.

Ekintza guzti horiek Espainiako Gobernuko Nekazari-tza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioak; Europako Gizarte Funtsak; INEMek, COAGek eta EHNEk diruz laguntzen dituzte. Informazio gehiago: www.solidaridadintergeneracional.es web orrian.

LABUR

UDALA

Aldi baterako lan eskaintza

Abendurako kultur etxeko langile ordezkapena egiteko eskaintza kaleratu zuen Udalak. Postura aurkeztutako en artean, langilea zozketa bidez aukeratu zuten azaroaren 10ean, 12:00etan, kultur etxean. Mainer Kaperotxipiri tokatu zitzaion eta, beraz, bera izango da abenduan kultur etxeko langilea.

Ordenantza fiskalak

2010erako ordenantza fiskalak urriaren 7an onartu zituen Aiake Udalak, EAJ-ren aldeko 5 botorekin eta Ezker Abertzalearen kontrako 3rekin, eta hauek dira zergetan eta tasetan izango diren aldaketak:

Ura, sanemandua eta arazketa %6,7 igoko da, zabor biltzea %15, musika eskola %1,25 eta Udal igerilekuko eguneko tarifak %1,62. Baita ere, argitu zuten, igerilekuko eguneko tarifa horri ñabardura bat eransten zaiola, hau da, arratsaldeko 6etatik aurrera beste tarifa bat aplikatzen zaiola: 4-15 urte bitartekoek 1,5 euro ordainduko dute eta 16 urtetik aurrerakoak 2,5 euro.

Ezker Abertzaleko Antxon Gomezek ordenantza berrien aurkako botoa justifikatzeko, zabor biltzetaren igoerari egotzi zion errua, Zubietako errausgailua finantzatzera doazelako hein handi batean eta, sistema horrekin bat egiten ez dutenez, ezin dutelako aldeko botoirik eman. Alkateak erantzun zion zabor biltzea tasatik jasotzen den diruaren zati handiena herritarrei ematen zaien zerbitzua ordaintzera doala.

AIAKO LEIHOA

Turismoa Euskal Herrian

Turismoa, askotan, hondartzekin edota toki eguzkitsuekin identifikatzen badugu ere, Euskal Herriak berezitasun ugari ditu eskaintzeko.

Horien artean, eta nabarmenetakoa, paisaia. Lurralde menditsuan bizi gara, baina, aldi berean, itsasoa bertan dugu eta nahasketa horrek Euskal Herria dotoreago agertarazten du.

Gaur bertan, autoarekin Zarauztik Aia barrena nentorren paisaiari begira, zeharo txundituta, hainbeste kolore-ri begira. Nire ahizpak dioen bezala, udaberrian eta udazkenean bereziki kuotaren bat eskatu beharko genieke bide hauetan pasatzen diren auto guztiei, sarritan ordaintzen dena bakarrik apreziatzen dugulako. Sirimiriak ere badu

bere alde ona, izan ere, hori gabe, ezin izango genuke inguru hau eduki.

Gastronomia ere aipatu beharrekoa da. Badakit herrialde gehienetan ondo jan daitekeela, batez ere jate-txe on batera joanez gero, baina hemen edozein tokitan dago ondo jatea eta ez dugu diru askorik gastatu behar. Nahikoa da Donostiako Alde Zaharreko Juantxora joatea eta bertako patata tortilla otertekoa jatea, sabela betetzeko xoxa handirik utzi gabe.

Jendea eta kultura ere aipatu beharko nituzke. Begira, nik hotel batean egin dut lan eta bezeroei askotan galdetzen nien zer gustatzen zitzaaien gehien gure lurraldeaz. *Jendea* erantzuten zuen %95ak, atsegina eta bihotz onekoa dela erantzuten zidaten, beti ere

laguntza emateko prest dagoen horietakoa. Nik uste dut euskaldunoi franko kostatzen zaigula etxeko atea zabaltzea, baina, behin zabalduz gero, asko ematen dugun horietakoak garela, eta hori jendeak eskertzen du.

Hondartzak ere gogoko dituzte bisitatzeko gaituztenek. Eguraldi eguzkitsua ez bada ere gurean sarri, udan gure hondartzak beteta agertzen dira.

Nola ez, nekazal turismoa. Azken urteotan izugarri hedatu da eta ez naiz batere harritzen. Hotelak baino merkeagoak dira gehienak eta para-je zoragarriak ere eskaintzen dituzte lasaitasunaz gain.

Dudarik ez dago turismoa diru iturri garrantzitsua dela gure ekonomiarentzat, baina egia da etortzen den jendea

Zer gustatzen zitzaaien gehien galdetzean, jendea erantzuten zuen turistaren %95ak; atsegina eta bihotz onekoa

egun gutxitarako etortzen dela. Oraindik ere lan ugari dagoela iruditzen zait turismoa suspertzeko. Euskaldunok produktua onak sortzeko gaitasuna badugu ere, ez dakigu behar den bezala saltzen eta horretan lan asko egin daiteke.

MAIDER LASA

TXOKOAK ETA JENDEA



Agorregi 1994

Gaztetxo talde hau Agorregi bisitatzera joan zen oinez, eta ondo merezitako hamaiketakoa eginez bukatu zuten goiza.

Eskerretik hasita: Maialen Saizar, Jose Manuel Lasa (Agorregiko burdinola eta erroten arduraduna), Gorka Zuloaga, Txaber Azkarate, Nerea Azpiazu, Mikel Aramendi, Sabi Azpiazu eta Asier Egaña bere atzean, Iñigo Azpiroz, Unai Arruti, Ander Egaña eta Mikel Azpiroz.

Atzean daude Ana Lasa, Joseba Egaña, Ixone Fernandez bere aurrean, Juan Mari Aldai, Laurentxi Iturain eta Eli Lasa.

Hamar urtek askorako ematen dute, eta hori argi geratu da Iñigo Manterolarekin izan garenean. Orioko Almirante Oa kalean zuen galeriatik, Donostiako Zaragoza plazan duen galeriara igaro den arte, beste bi lekutan ere egon da. Urte horietako ibilbideaz luze aritu gara.

IKER GURRUTXAGA

Denbora asko da margolanak egiten hasi zirela; zein izan da zure ibilbidea?

1993an, 20 urte nituela, Arte Ederrakikasten hasi nintzen Leioan. Pinturan espezializatuta amaitu nuen 98an. Baina aurretik ere, 95ean, hasi nintzen erakusketak egiten eta 40 inguru egin ditut. Aipatzeko Valentzia, Zaragoza, Sevilla, Oporto, Iruñea, Bartzelona, Madril, Miarritze... eta, nola ez, Orion ere egin ditut pare bat-edo.

97an uste dut ireki nuela lehen arte galeria, karrera amaitu aurretik, Orioko Almirante Oa kalean.

Sariketarik irabazi al duzu?

Ez naiz horietan parte hartzeko zalea. Obra lau pertsonen epaitzea ez da bidezkoa. Baina, batzuetan izan naiz eta 4 irabazi ditut. Zarautzen, St. Ciersen-Frantzian-, Rosesen-Katalunian- eta Luarcako-Asturiasen-, *La gastronomía en la pintura* lehiaketan.



KARKARA

IÑIGO MANTEROLA | ARTISTA

“Artista errepikatzen hasten den une berean hiltzen da”

Zein teknika erabili dituzu?

Asko izan dira. Batzuk pertsonalagoak izan dira beste batzuk baino, baina guztiak elkarren artean ezberdinak.

Hasieran, agian, urak sortzen dituen islak izugarri landu nituen, herrian dagoen txalupa bat askotan marraztu nuen. Beranduxeago, nirea erosi nuen, alabaren izena daramana, eta hari zuku handia atera diot urte hauetan. Aurrerago interferentziak sartu ditut. Horretarako pintura kapa asko jarri eta zizelkada batzuk emanda sortzen diren testura bereziaz baliatu naiz.

Orain eskua altxatu gabe lerro baten bidez marraztu nahian nabil, alanbrea ere erabiltzen ari naiz... Museo batean nire kolekzioak jarriko balituzkete, inork ez luke esango pertsona berak egin dituenik. Egurraren zein mihi-searen gainean margotzen dut. Lija ere erabili izan dut erlieberik ez duen irudiari erliebearn itxura emateko. Azkenaldian, erabiltzen ditudan materialak gordetzen ari naiz. Kutxatxo bat hartu, eskultura txiki bat bezala egin eta koadroaren egunerokoa bezala da hori. Hor ikus daiteke erabilitako guztia zer den: grapak, pintura tuboak, pintura bera, xipua izaten duen babestekoa...

Estilo askotan jardungo zenuen, beraz.

Ez naiz margolan figuratibo hutsak egitearen zalea, nahiago dut abstraktogoan jardun. Hala ere, enkarguzko lanak egin behar izaten dira, eta figuratiboak izaten dira gehienak, baina pertsonalak.

Gazteagoa nintzenean, gehiago lantzen nuen errealismoa. Baina, beranduago, errealismoarekin jolastu egin dut. Segundo erdiko tartean objektu baten bi irudi hartu, eta horiekin nolabaiteko mugimendua adierazten duten margolanak egin ditut.

Zerbait ezberdina egiteko nahia dut beti, etengabe berri-ala hil, hori da nik pentsatzen dudana eta bide horretan aurrera egiten saiatzen naiz.

Horregatik hainbat korrante eta teknika zure lanetan?

Etengabe aldatzeko beharra dut, bestela ez naiz ongi sentitzen. Anbizio handikoa naiz alde horretatik, ikasi egin nahi dut, ahal bezain beste ikasi.

Artistaren lanak etengabe aldatzen joan behar du, behin errepikatzen hasten den unetik ez da artista, hil egiten da artista hori, artisau bihurtzen da. Niri halako zerbait gertatzen zaidanean, mundu hau utziko dut.

Batek behin esan zuen moduan *artista, margotzen duena saltzen saiatzen da; ez denak, saldu dezakeela uste duena margotzen du*. Nik, behintzat, nahi dudana margotzen dut.

Teknologia berriek artean izan duten eragina zer iruditzen zaizu?

Teknologia berriek alde onak eta txarrak erakartu dizkiote arteari. Ni ez naiz gehiegi murgildu mundu horretan, ideiak hartzeko besterik ez dut erabiltzen nik teknologia, eta argazki digitalera mugatzen naiz. Beste batzuek argazkiak koloreztatu baino ez dute egiten.

Esaterako, Bartzelonan bazen bat irudi bat hartu, txuri beltzean jarri, ploterean, inpresora handian, inprimatu eta margotu egiten zuena. Hiperrealismoaren barruan kokatzen zuen bere burua, baina, nire ustez, hori nire alabak eskolan egiten duenaren parekoa da. Ez dago sormenik, eta ez zait gustatzen hori. Kasu horretan, artea egindako argazkian islatzen da, argazkilaria da benetako artista.

Beraz, gaur egungo aurrerapen teknologikoekin egiten dena, artea baino gehiago, diseinua dela esango nuke nik.

Gero badago beste mundu bat ia-ia ezagutzen ez dudana, eta ikus-entzuzkoena da hori. Ez naiz zineaz ari, baizik eta gurearen gisako artea eta musika uztartzen dituen arteaz, mundu zabala da hori, oso zabala.

**Ikasi, ikasi eta ikasi. Ez al zai- zu sekula irakaslea izateko gogo piztu?**

Egia esan, ez. Eskaini izan didate noiz edo noiz, baina ni ez naiz horren zale. Nere lanak egin nahi ditut, eta irakaskuntzan sartuko banintz, sekulako lotura eta menpekotasuna izango nuke, eta

ezingo nuke gaur egun egiten dudanarekin jarraitu.

Lehendik ere andreak eta bi alabek denbora libreko orduak betetzen dizkidate eta lasaitasun tartea ere behar izaten ditu artistak.

Surfa ere asko gustatzen zait, nahiz eta askorik ez ibili.



KARKARA

Artistei zor zaien begirunea ematen al zaie?

Egia esan behar badut, ez naiz inoiz egon besteek esango dutenari begira. Karreran hasi nintzenean, belarritakoak, txima-luzeak eta abar neuzkan.

Askorentzako itxura txarreko mutila izango nintzen,

arte ederretako ikasle askok entzun behar izaten duen moduan.

Artea estimatzen duenak, badaki hori ondo asko egiten. Bai atzerrian, baita hemen ere. Donostian nagoenetik asko harritu naiz jendeak artearekiko duen kontzeptu onaz, ez nuen halakorik espero.

TEKNIKAK

“Teknika oso ezberdinak erabili ditut nire lanak jorratzerako garaian. Museo batean nire kolekzio ezberdinak jarriko balituzkete, inork ez luke esango pertsona berak egin dituenik”

KORRONTEAK

“Ez naiz margolan figuratibo hutsak egitearen zalea, nahiago dut abstraktogoan jardun. Enkarguzko lanak egin behar izaten dira, eta figuratiboak izaten dira gehienak, baina pertsonalak”

ARTISTA ETA ARTISAUTZA

“Artistaren lanak etengabe aldatzen joan behar du, behin errepikatzen hasten den unetik ez da artista, hil egiten da artista hori, artisau bihurtzen da. Niri halako zerbait gertatzen zaidanean, mundu hau utziko dut.”

TEKNOLOGIA BERRIAK

“Teknologia berriek alde onak eta txarrak ekarri dizkiote arteari. Ni ez naiz gehiegi murgildu mundu horretan, ideiak hartzeko besterik ez dut erabiltzen nik teknologia, eta argazki digitalera mugatzen naiz. Beste batzuk argazkiak koloreztatu baino ez dute egiten”

ARTISTENGANAKO BEGIRUNEA

“Ez nau kezkatzen gehiegi jendeak artistongandik esan dezakeenak. Ni gustatzen zaidana egiten ari naiz eta horrek balio du gehien. Estudio berrian, dena den, izugarritzko sorpresak eramaten ari naiz, batez ere Zinemaldia izan den garaian”

Zinemaldiaren garaian hainbat lan saldu ditut. Normalean, etortzen denak koadroak ikusi, pentsatu eta beste egun batean erosten du.

Zinemaldiaren garaian, New Yorkeko bikote batek eta Mexiko hiriko gazte batek etorri, koadroak begiratu eta momentuan erosi zizkidaten.

Eztei bidaian etorritako beste bikote estatubatuar batek ere gauza bera egin zuen.

Zinemalditik kanpo, Alemaniako gizon batek, gehiago pentsatu arren, bost lan erosi zizkidan. Connecticuten ere nire lanen bat bada. Horrek bati indarra ematen dio aurrera jarraitzeko.

Galeriak aipatu dituzu, zenbatetan izan zara?

Orion eman nituen nire lehen urratsak aurrez esan dudan moduan. Karrera oraindik bukatu gabe nuela, oso garbi neukan artearen mundutik bizi nahi nuela, margolari izan nahi nuela, alegia.

Horren ondorioz, Almirante Oa kaleko galeria ireki nuen. Joxe Ramon Salsamendik berea itxi zuenetik Orion ez zegoen galeriarik eta nirea zabaltzera animatu nintzen. Xumea zen, baina lehenengo esperientzia izan zen eta oroitzapen onak ditut.

Handik urte batzutara, Ibai-ondo kaleko galeria ireki nuen. Handiagoa zen, argitasun gehiago zuena eta jendearen bistan geratzen zena.

Urte batzuk bertan eman ostein, Zarautzen ireki nuen hirugarrena; aldatzen joan behar zen eta hara joatea erabaki nuen.

Azken galeria, beraz, Zarautzen nuen; baina, Donostiakoa irekitzean, hura ixtea erabaki nuen, ez baitzen errentagarria. Hau, orduan, laugarrena da, bat Donostian, bat Zarautzen eta bi Orion, horietako bat orain pinturaleskola edo dena.

Denbora pixka bat pasa da Oriotik joan zinenetik, nolako lotura mantentzen duzu herriarekin?

Egia da urte dezente pasa direla herritik joan nintzenetik; baina, hala ere, tarteka bisitan joaten naiz.

Asko aldatu den herria da Orio, dudarik gabe, baina horren beharra ere ikusi dut kanpotik. Xarma asko zuten lekuak suntsitu dira halaberrez; industriadik ez dagoenean hori gertatzen da.

Oriotarrak kexu izango dira beti egin dutenaz, baina aurretik Getaria, Deba, Mutriku, Hondarribia... bezalako herrietan gauza bera gertatu da eta bat ohitu egiten da. Nik txoko horiek ezagutzen ditut eta egia da pena ematen duela, baina hemen guztiok bizi behar dugu modu batera edo bestera. Orion dagoen indus-




KARKARA

tria bakarria arrantza da eta horrekin ezin herri osoa mantendu.

Jakingo duzunez, sahiesbidea, trenbide eta tren-gelto-ki berria eta Ortzai-ka parean zubi berria egingo dira.

Penagarria den arren hoberako egingo dutelakoan nago. Begiarentzat izugarria izango da hainbeste urtetan aldatu ez den zerbait kolpetik hainbeste aldatzea, baina hoberako bada, egin beharko da. Erzilla-Enea, –trenbide

ondoan dagoen etxe handia– etxe oso ederra da ez bairik gabe, nahiz eta nik txikian bakarrik margotu dudan. Handian margotzeko asmoa badut. Trenaren zubia hori parean jartzeak pena ematen dit, baina beharrek agintzen



INIGO MANTEROLA

dute, ez edertasunik. Horrelakoa da gaur egungo gizartea, eta bertan bizi direnek sufritu beharko dutenak amorrarioa sortzen dit nire barruan.

Orion jaiotzeak arraunzale-

tasuna betiko mantentzen al du?

Gaur egun, ez naiz zalea. Beno, ez, zalea izan banaiz, odol horia zainetan daramat nik ere. Esaterako, ikusten al duzu obra hau? Ba lan honetan ikusi daitekeena ez da

GALERIAK

“Azken galeria Zarautzen nuen; baina, Donostiakoa irekitzean, ixtea erabaki genuen, ez baitzen errentagarria. Honekin laugarrena da, bi Orion izan nituen, bat orain pintura-eskola edo dena”

ORIO

“Asko aldatu den herria da Orrio dudarik gabe, baina horren beharra ere ikusi dut kanpotik. Xarma asko zuten lekuak suntsitu dira halabeharrez, industriarik ez dagoenean hori gertatzen da”

“Oriotarrak kexu izango dira beti egin dutenaz, baina aurretik Getaria, Deba, Mutriku, Hondarribia... bezalako herrietan gauza bera gertatu da eta bat ohitu egiten da”

ERZILLA-ENEA

“Etxe oso ederra da, ezbairik gabe, nahiz eta nik txikian bakarrik margotu dudan. Handian margotzeko asmoa badut. Zubia hor parean jartzeak pena ematen dit, baina beharrek agintzen dute, ez edertasunik”

ARRAUNA

“Ez ditut arraunlariak ezagutzen gaur egun, ez bait naiz zalea. Beno ez, zalea banaiz, odol horia zainetan daramat nik ere, baina lagunek utzi zutenetik ez dut lehen bezain beste bizi arraunaren mundua”

OTEITZA

“XX. mendean Euskal Herrian, Espainian eta, gehiago esango nuke, munduan izan den eskultorerik onena izan zen”

edozein traineru, Orioko trainerua da, eta, jakina, bandera irabazi berriaren lehorreratzaren ari dira.

Zer diozu Jorge Oteitzari buruz?

Guztion begirunea mere-

zi du. Etengabe birziklatzen zen. Eskulturak modu diferenteetan egin zituen, marrazkiekin ere saiatu zen... XX. mendean Euskal Herrian, Espainian eta, gehiago esango nuke, munduan izan den eskultorerik onena izan zen.

ADARRETATIK HELDUTA

Bizitza 2.0

Komunikatzeko gero eta bide eta modu gehiago ditugu eskuartean, baina gero eta hobeto komunikatzen al gara? In-komunikazio osoa / Bakardadea, iluntasuna / Tristezia, ondoeza, historia / In-komunikazio osoa. Eza-guna egiten al zaizue?

Sare sozialei esker, edo zoritxarrez, gaur egun bizitza paralelo bat bizi dugu: bizitza 2.0 deiturikoa. Askok eta askok sare sozialak denbora-pasa gisa hartzen badituzte ere, gero eta garrantzi handiagoa dute gure bizitzetan. Lana da adibide bat. Gero eta gehiago, enpresariak kontratatu behar dituzten langileen Facebook, Twitter edo Tuentiko profilak sakonki aztertzen dituzte, balizko langilearen gaineko informazio gehiago eskuratzeko: zaletasunak, dituen lagunak... Behin enpresa bateko langile bihurtzean ere, arazo moralak eragin ditzake sare sozialeko kide bihurtzeak. Zer egin sare sozial batean nagusiak zure lagun egin nahi badu? Onartu ala ez ikusiarena egin? Onartuz gero, agian, zure profileen sartuko zenituzkeen zenbait argazki edo testu sartzeari uko egingo diozu. Auto-zensura zuk sorturiko txokoan? Gonbidapenari ezetz esatea ere zerbait ezkututzen duzunaren seinale izan daiteke. Edo, agian, buruari buelta gehiegi ematea da?

Hedabideentzat ere informazioa zabaltzeko aukera



ONINTZA AIESTARAN
KAZETARIA

Askok eta askok sare sozialak denbora-pasa gisa hartzen badituzte ere, geroz eta garrantzia handiagoa dute gure bizitzetan

Zer egin sare sozialean nagusiak lagun egin nahi badu? Onartu ala ez ikusiarena egin?

ematen duen beste plataforma bat da. Ez hori bakarrik egun, informazio-iturri gisa ere erabiltzen da komunikabideetan. Lehen, irratia

zen albiste bat zabaltzeko modurik azkarrena. Orain sare sozialek tronu hori kendu diote. Nahikoa da, esaterako, Twitterren esaldi bat sartu eta enter botoiari saketzea edozein albiste sarean barrena hedatzeko.

Plataforma berri hauek agian guk uste baino eragin handiagoa dute gudan. Izan ere, sare sozial horietan gure bizitzaren bigarren zatia garatzeko aukera dugu. Herrian lagun talde bat dugun moduan, lagun talde bat dugu Facebooken, Tuentin edo dena delakoan. Eta lagun taldeak gurekiko iritzi ona izatea garrantzitsua den moduan, garrantzitsua da sare lagunek ere zurekiko iritzi ona izatea. Azken horrek berdin balio du pertsonerikiko, produktuekiko edo enpresekiko. Edo bestelagalde diezaiotela *Paranormal Activity* filmaren produktoreari. Sare sozialean egini-ko ahoz ahozko onari esker AEBetako zinema-aretoetako filmik ikusiena izatea lortu du produkzio xume horrek.

Ez hartu idatzi hau sare sozialen aurkako gisa! Gauza guztiek bezala baditu alde onak eta txarrak, ongi erabiltzen jakitean dago gakoa! Hala ere, ez dakit sare sozial horiek inkomunikaziora ez ote garamatzen. Geroz eta ausardia gutxiago dugu aurrez aurre hitz egiteko eta gehiago sare sozialen bidez pentsatzen duguna adierazteko.

NIRE HONETAN

Murriztu eta berrerabili

Herriarrok sortutako zaborra Zubietan egingo den erraustegira bidaltzeari uko egin dio Orioko Udalak eta atez ateko gaikako bilketa bidea zabaldu. Erabakiari txalo egin nahi diot.

Hala ere, laster hastea espero dudana proiektu horren lehen pausoa besterik ez da, kilometro luzeak dituen bidearen aurreneko metroa. Gaikako bilketa ez da dugun erronka, bitartekoa baizik. Birziklatze hutsak (noizean behin papera zakarrontzi urdinera botatzea ez du zaborra gutxiago sortzeko bidea egiten. Eros itzazue plastiko gutxien erabiltzen dituzten produktuak, adibidez.

Denboran atzera egin beharko dugu aurrearapausoak emateko; aiton-amonon ohitura zaharrak gaurkotu beharko dira: karroetan eraman ditzagun erosketak etxera; birritan garbitu daitezkeen produktuak erosi ditzagun, zakarrontziak behin bakarrik erabili daitezkeenekin bete gabe...

Bestalde, atez ateko bilketa ez omen da segituan jarriko martxan. Hala ere, zain egon gabe, alderdi asko eta asko landu daitezke (herriarroi behar bezala birtziklatzen erakustea, esaterako) horretarako gogoia baldin badago, behintzat.

LORE BERSALUZE

Igo zaitez haize berrietara!

Galema I

943890416 - 677149934
galema1orio@hotmail.com

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

<p>Tabarka Agone Industrialdea Agote, 5. 20740 Zeanza</p>	<p>Erakusketak Aito Lemaundi, 21. 20810 Orreaga Tel: 943 09 49 36</p>
---	---

MOILA BAZTERRETIK

Ur marroia eta ke beltza



JON AGIRRESAROBÉ TORROTZO

Euri eta euri, elegante dator errioa. Kafe-makinako kaputxinoaren kolorea du ur-jalak. Hala deitzen diote moila bazterreko metereologoek. Burgikoen tankerako almadiak antolatu dira San Luis eta Kantrabri-

koren artean; Villabonako kaletarrari eskutik joandako aterkiak zulatu du Joxe Migelen yatea; Ikastola aurrean bueltaka zebilen atzo Idiazabalgo neska koxkorri ihes egindako baloia.

Traste zaharrak askoz gehiago. Baina ikusitako eta imajinatutako guztiak ez dituzterrendan sartu. Zuen osasuna dago jokoan. Pentsa, duela hilabete eta erdi ibaian pasa genuen goiza herriko gazteek. Kolorea hartzen hasia zegoen ordurako. Gaztetxearen alde gazteak, udazken koloretan.

Gaur, ia hondakin guztiak helmugarairitsiak izango dira. Martxan da hondartzako tonbola. Egurrezkoa da. Txakurrari makila bota eta ez du jakingo zein den nagusiarena. Udan hanka azpian bueltaka

izango ditugu biltzen ez dituztenak.

Urak tapatu ditu baratzak: akabo koliflorak, bruselasko azatxoak eta letxu moreak. Platera dekoratzeko erabiltzen direnez, gaitzerdi. Baina laster haizeak zikinduko ditu, kutsatu. Zazpi kilometrora zabalduko baita kea. Eta honen opariak marroiak izango dira urarenak bezala. Eta ez ditugu ikusiko.

Errauskailuaz ari naiz. Herritik zazpi kilometrora omen. Estrategia eraginkorra da komeni denean gora edo behera borobiltzea. Zubieta jarri behar badute, ez da zazpira egongo, Via Michelinek hamalau markatzen ditu, autopistaz joandahamar. Berdin dio, ez da broma.

Bitartean zinegotziak 5-6, pilota partiduan. Ez dakit,

**Urak tapatu
ditu baratzak (...)
Baina laster
haizeak zikinduko
ditu, kutsatu.
Zazpi kilometrora
zabalduko
baita kea. Eta
honen opariak
marroiak izango
dira urarenak
bezala.
Eta ez ditugu
ikusiko.**

udaletxeko leihoak ez ote daude ibaira begira. Eta aurki marroia beltza bihurtuko da.

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefona: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Zaragueta
Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**MEDIKUNTZA NATURALA,
BANAKAKO KONSTELAZIOA,
KONSTELAZIO FAMILIARRA
ETA TAROT TERAPUTIKOA**

Deban, Omen, Donostia...
Kontsultak aurreratu edota telefonoz
688 73 93 55 -Izarre-

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

iSLada
BESULINA ZARLEPOA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Balsaren kalea, 2 beheko Orio 20810
TF: 943 133 896
e-mail: isladario@hottmail.com

NATURISTA
KONTSULTA ORION

— Tratamendu naturalak —
— Oreak energetikoak —
— Bachen loreak —
— Itaki —

Misus Fernandez Huetxuri
naturagizona diplomadua
Tel: 655 726 291
e-mail: orion@naturagizona.com

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur, Señorío de Laurgain
Gailur eta Arlandegi.
Arabar Erriosoako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 50 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

tel/fax: 943 89 00 69
Bikola kalea, 4. 20.800 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA
Prestazioak, laguntza, aske

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27 **ALDIZKARIAN**

EGIN ZAITEZ KARKARAKIDE

KARKARA
20 urte

KARKARAKide izan nahi dut: KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago KARKARARI urteko 30 euroko laguntza emateko.

Izen delturak:.....
 Helbidea:.....
 Herria:..... Posta kodea:..... Tel:.....
 Kontu korronteko zenbakia:

FISIOTERAPIA Garrantzi Arilegi eta Nabilis Wareszen
NUTRIZIONISTA Garrantzi Azpuri



sinergia investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Dorronsoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN



Tel 943 83 09 37

agirresarobe + elizondo arkitektura

Obra eta proiektuak

obra berrien proiektuak • informak • erretornak eta erregulazioak • obra direkzioa • gremio koordinakuntza

borja agirresarobe lopetegi tel.: 635 731 722

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu



943 83 09 84 alta lertxundi, 36 ORIO

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 56 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea, 20310 Orrio



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 913
Faxa: 943 020 213
ventanasagasti@euskalnet.net
Bizkaia kalea, 20-1 B
20800 Zarautz

ITZIAR

kirolak



Tel. 943 83 31 03

Winturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Azenda/Arlo dastar aldean
943 83 08 45 / 61 8 86 25 35
ZARAUZ

Joseba Ostolaza TAXIA

24 ORDUKO ZERBITZUA
Tf: 646 510 288



Baxoalde, 9 ORIO



Sanpedroetan dantzarako prest

Garai bateko festak oraingoarekin zerikusirik ez duela esaten da, eta horren adierazgarri da argazki hau.

1956-57. urtekoa dela esan digute eta sanpedroak zirela zalantzarik gabe ziurtatu digute, ea zer dela eta dagoen hainbeste jende plazan galdetzean. Dantzaldiko ordua zela eta garai hartan parrandan horrela aritzen omen ziren, egun argiz, alajaina.

Gaur egun, ordea, gauzak izugarri aldatu direla eta ulertzea ez zaiela erraza egiten adierazi digute argazkian agertzen direnetako batzuk.

Hauexek dira, goiko ezkerreko ertzetik hasita, argazkian agertzen direnak: Mari Karmen Peña, Ramonita Solaberrieta, Maria Jesus Kanpos, Maria Luisa Arruabarrena, ezezaguna, Bixente Uranga, Migel Mari Aramendi,

Balentin Manzisidor eta Manuel Lizaso.

Guztiek 18 urte zituztela esan digute eta, garai haietan, dantza egitea zela festan ongi pasatzeko zuten modurik onena.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

ARGAZKIA: MIGEL MARI ARAMENDI
INFORMAZIOA: ANJEL LIZASO

LOBETXU JATEXEN

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

LURDES
MERLUZERIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TRUKOAK - BAIKURAK

Santiago auzoa - 18 postokutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
E-INGE
ISO 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtogiriduna

KRITIKA



Azaroaren 6an, Napoka Iriak bigarrenez jo zuen Orion.

KARKARA

Napokatik Japoniara, Japoniatik Errustara

Sorpresa. Sorpresa itze-la. Horixe izan zen aurreko ostiralean Errustan. Japonian biran ibili ostean, gonbita luzatu genien *Napoka Iriak* oei orain hiru urte hondartzan eman zuten erakustaldia errepikatzeke.

Azaldutako asko aho zabalik geratu zen Mirenen ahotsaren potentziarekin; mugagabea dirudien erregistroa, maisutasunez gidatutako matiz eta tinbre aldaketak, espresioak... Potentzia eta mehetasuna, nahi bezala, erraz trukatu zituen bere

eztarririk kanpora.

Anderren gitarra jotzeko era propioa, bestalde; taktua, estiloa, goxotasuna... kanta bakoitzari bere ukitua dotore ematen zion. Beren aurreko diskoko kanta mordoak jo zuten, proiektu berri eta zaharrez apainduta. John Fruscianteren kanta bat bikain jo zuten eta SuTaGaren kanta bat eraldatu, balada kurioso bat eskainiz.

Antolatzaileok ere sorpresa, kontzertuak izan zuen arrakasta ikusirik, taberna lepo eta Oriotik kanpoko jende mordoak.

Pena, bizilagunak ez gogaitzeko beldurrez ibili beharra, oraindik horrelako kontzertu bat emateko toki aproposik ez dugulako.

Orain dela hiru urteko erakustaldia sobera gaintu zuten, ez zuten hutsik egin.

Kontzertura joan ezzinetenoi myspace.com/napoka kairia linka gomendatzen dizuet, ez zaizue damutuko. Ea hurrengo batean antzeko egoeran elkar aurkitzen dugun.

JOSEBA BRIT

IKASLEAK IDAZLE



MIKEL AIESTARAN |

DBH 4KO IKASLEA

A gripea eskoletan

A gripeak, ikaragarritzko kezka sortu du bai eskoletan eta bai mundu guztian ere, baina, ba ote dago horrenbeste kezkatzeko arrazoirik?

Denok gogoratuko dugu gauza bera gertatu zela behi eroekin eta, ondoren, hegazti gripearekin, eta ez genuen aparteko eraginik jasan.

Nahiz eta medioetan A gripearen inguruan datu kezagarriak eman, gripe horrekin hildakoen tasa oso txikia da Euskal Herrian, eta hil diren horien artean, gehienek arazoak zituzten lehendik ere. Nire iritziz, ez litzateke eskoletan aparteko neurririk hartu behar, azken batean, neumonia, ohiko gripea eta abarren inguruan, ez baita ezer berezirik egiten eta iruditzen zait gaixotasun horiek kezagarriagoak direla; A gripearen arazorik handiena egiten zaion propaganda baita.

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

OSPAKIZUNA



Arrain handiarekin etxera

Aniceto Tamayok sekulako itsas aingira arrantzatu zuen arranplan bertan, ia etxetik mugitu ere egin gabe. Itsasotik sartuta, marea jaistean, putzuren batean atera ezinda geratu zen arraina, eta Anicetok, bertan ikustean, etxera joan, fusila hartu eta tiro egin zion. Jokin Illarramendik eta biak sokatik tiraka lehorreratu zuten arraintzarrak 30 kiloko pisua zeukan tripak kendu eta gero. Bapo afaltzeko moduko pieza harrapatu zuten beraz.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Pintore gazte oriotar honek (Iñigo Manterola) oso ondo margotzen ditu itsasoa, itsasoko jendea eta ingurua. Olatuak goxatu egiten ditu. Ez du teknika bakarra erabiltzen eta estimatzekoa da hori, saiakera handia egiten baitu pintagai bakoitzari ondoen datorkion teknika aukeratzen; eta asmatu egiten du, gainera. Ederki margotzen ditu txalupak: aurrez, albotik, gertutik, urrititik... eta, zer esanik ez, bizi-bizi irudikatzen dituen portua eta hegaluze-arrantzale geldiezinak. Gogo handia erakusten du, bai, eta lanerako grina erabatekoa. Hori da hobetzeko bidea; horrela goxatzen dira olatuak.”

RAMUNTCHO ROBLES | KAZETARIA
Euskonews aldizkari elektronikoa; 2009/10/23

ZORIONAK!



Iberdrolari

Aurreko astean berriro joan zitzaigun argia oriotarroi eta gehiegietan gertatu da hori azken urte honetan.

Horrelakoetan gertatzen denez, arazo ugari sortu zizkigun herritarroi eta, zenbait etxetan egoera larri samarrean gertatu ziren.

Behingoa balitz, edozeini gerta dakiokela esan genezake; baina behin eta berriz gertatzea ez da normala. Iberdrolari doazkio, hori dela eta, gure zenbaki honetako zoriotxarrak, bere ardura delako prezio onean kobratzen digun elektrizitatearen hornikuntza behar bezala ziurtatzea.

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

TANATORIO ZARAUTZ
EL HOFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donastia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiako zerbitzua
* Belatorio gelak
* Koroiak, eskekek, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 49 57 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hurrezpil@hurrezpil.net

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

ORAIN DELA 25 URTE

Izeta eta Oliden primeran ibili ziren idi-probatan

Azaroaren 10ean, pisu libreko probak egin ziren Aian eta Manuel Iruretagoiena *Izeta*; *Madriagako ezker*a azpeitiarra, aurreko urteko txapelduna; eta Eibarko Arrillaga aritu ziren nor baino nor. *Izetak* irabazi zuen jardunaldi hartan, Leon eta Iketza idiekin, 40 plaza eginda, baina, astelehenean, Berritxuko Artialde Elkarteke idi pareak kendu zizkion eskura zituen mantak, 40 plaza eta 2,75 metroekin.

Azaroaren 13an Arrietan ziren idi probak. Pedro Mañarikua arrietarra; Alejandro Oliden Orioko harakina, *Caja de Ahorros Municipal de Bilbo* challengeko liderra; Loiuko Elordui anaiak, orduko Euskadiko txapeldunak eta Erandioko Salvador Trabudia eta Bustamante aritu ziren. Dema horretan, bigarren izan zen Oliden, baina *Challengeko* sailkapenean lehen postuari eutsi zion.

ERREKORRA BEHOBIAN

Azaroaren 11n, Behobia-Donostia lasterketa klasiko 20. edizioa jokatu zen eta ordura arteko errekorra lortu zen parte hartzean, 2.430 korrikalarirekin.

Juan Carlos Andres izan zen irabazlea, ordu bete, 2 minutu eta 58 segundoko denborarekin. Maria Luisa Irizar izan zen lehen emakumea eta Juan Carlosek baino 13 minutu gehiago behar izan zituen.

1984
AZAROA

Arrietan bigarren izan zen Oliden, baina Challengeko sailkapenean lehen postuari eutsi zion

Behobia-Donostian ordura arteko errekorra lortu zen parte hartzean, 2.430 korrikalarirekin

Reaganek AEBko hauteskundeak irabazi zituen

REAGAN PRESIDENTE

Azaroaren 6an, Ronald Reaganek AEBko hauteskundeak irabazi zituen, George H. W. Bush presidenteorde izanik.

49 estatuetan irabazi zuen eta aukariak, Mondalek, berriz, Minesotan eta Columbian bakarrik. Horrela, Reaganen alderdiak, errepubli-

karrak, 525 hautetsi lortu zituen eta Mondalerenak 13.

LEHIAKETA

12 eta 17 urte bitarteko haurrentzat narrazio, poesia eta marrazketa lehiaketak antolatu ziren sanikolasetarako.

Euskaraz nahiz gazteleraz aurkeztu zitezkeen lanak, baina gaiak aurrez ezarritakoak ziren. Narrazioan, Orioko arrantzale jaiaren jatorria zen gaia eta, poesian, herria orokorrean. Literatur lanak azaroaren 12rako utzi behar ziren liburutegian eta lanek sinatu gabe joan behar zuten, liburutegiko zaintzailea arduratu baitzen norenak ziren identifikatzeaz.

Aukeratutako lan onenak sanikolasetako festa programarekin batera argitaratzen ziren eta, gero, Udalaren esku geratzen ziren.

Marrazketa ere gauza bera gertatzen zen, baina lanak aurkezteko epea azaroaren 9a zen. Irabazlearen marrazkia festa programako azalean agertu zen.

ORTZAIKAKO SANMARTINAK

Azaroaren 17an, 18:00etan, oilasko biltzea egin zen Ortzaikatik abiatuta. 20:00etan, txokolatada izan zen eta, 23:00etan, Trakets.

Hurrengo egunean, 11:00etan meza egin zen, 13:00etan trainerillen estropada eta aizkolariak eta, 20:00etan, berbena.

JAIOTAKOAK

- Dana Acero Uranga, Orion, azaroaren 7an.
- Etxaun Sukia Iaben, Orion, urriaren 26an.

EZKONDUTAKOAK

- Maria de Olatz Aizpurua Sagurola eta Aitor Matxain Olasagarre, Orion, urriaren 31n.


HILDAKOAK

- Josefa Inazia Aldabaldetretu Bergaretxe, Aian, azaroaren 7an. 89 urte.
- Luis Arruti Arruti, Orion, azaroaren 7an. 51 urte.

John Cowie
jauna

2009ko azaroaren 7an hil zen Edinburgon, Eskozian, 92 urte zituela

goian bego



He apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - Ibaio
Tel. 943 13 47 29
ORIO

aroztegia
MIRANDA
tarima, eta, leiho, eskalera...
behar diren arozte lanak
agotigo dirikizagu
Udala eta bidai. 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIKA
Igeltseritza
699 46 76 21
943 13 10 37

IDURRE LIZARRALDE | PUBLIZITATEKO ADMINISTRARIA

“Batzordea sortu dugu Orion ‘Egunkaria’-ren alde”

Komunikazio eta humanitate zientzietan lizentziatu zen orain dela 5 urte, eta praktikak Iragarri SLn egin eta gero bertan jarraitzen du lanean 27 urteko oriotarrak.

Lehenik eta behin, barkatu, aurrekoan kazetari deitu genizun.

Lasai, halakoak gertatzen dira. Komunikazioan lizentziatu izanak eta *Egunkaria*-ren aldeko batzordean egon izanak askori sorraraziko zion zalantza hori, baina ni, publizitatean aritzen naiz.

Iragarri eta *Egunkariak* zer nolako lotura dute?

EKTren –Euskarazko Komunikazio Taldea– barruan dago *Iragarri*, publizitate kontuak eramaten ditu. Taldearen barruan beste enpresa batzuk daude, horien artean *Berria*.

Guztiak *Egunkariaren* itxieraren ondotik sortu ziren eta nire inguruan dauden langile askok *Euskaldunon Egunkarian* egin zuten lan.

Zu sartu zinenean nola ikusi zenuen jendea?

Ni sartu nintzen garaian *Egunero –Egunkaria* eta *Berriaren* artean egon zen trantsizioko periodikoa– errepasatzen jardun nintzen.

Jendeak laguntzeko izugarritzko gogoaz zuen, eta publizitatea jartzeko nahi horrek sekulako lana sortu zuen; hainbeste lan zegoenez, hila-bete asko behar izan ziren kontu guztiak txukuntzeko.

Jendea erabat hunkituta zegoen egoerarekin.

Auzia beti egon al da presente zuen inguruan?

Horixe baietz, *Gaztesarearen* aurkako operazioan asko nabarmendu zen hori.



Idurre Egunkariaren aldeko Orioko batzordean ari da lanean.

KARKARA

“Ez zait gustatzen inplikatzeari, baina hemen datu asko ditugu egiten ari direna astakeria hutsa dela garbi ikusteko”

Gure lankideetako bat atxilotu zuten–nahiz eta ez dagoen auziperatua– eta ez zait sekulan ahaztuko hark une hartan jarri zuen aurpegia. Gainera, hasieran nahastu egin ziren eta *Berriaren* egoitzan sartzen hasi ziren eta horrek nolabaiteko ondoeza

“Ni sartu nintzenean egoitza berrira sartu nintzen, eta jende pila bat lekuz kanpo ari zen lanean”

sortu zuen, iraganeko mamuak itzuli izan balira bezala.

Zu zein egoitzatan hasizinen lanean?

Ni sartu nintzenean, egoitza berrira sartu nintzen, eta jende pila bat lekuz kanpo ari

zen lanean. Aurten jubilatzea hartu duen lankide batek askotan kontatzen zidan nola zen *Euskaldunon Egunkaria*-ko erredakzioa.

Asko kostata ohitu ziren erredakzio berrira, baina ohitu eta berehala prezintoa kendu eta *Egunkariaren* egoitzara itzuli ginen. Baina zeharo aldatuta zegoen gutzia. Egoera arraroa izan zen, guztiak gogoratzen ziren aurretik dena nola zegoen eta nostalgia apur bat nabari zen lan-giroan.

Gaur egungo lan-taldea benetan inplikaturik ikusten al duzu *Egunkariaren* alde?

Jendea benetan inplikaturik dago. EKTren sorrera *Egunkariaren* desagerpenetik dator, eta egindako injustizia transmititzen jakin dute aurreko kazetan aritu ziren langileek gaur ari garenoi.

Nire kasu partikularra aipatuta, ez naiz inoiz ezertan sartuta ibiltzeko zalea izan eta, agian, beste nonbait aritu izan banintz, ez nuke halako inplikaziorik izango. Baina hemen datu asko ditugu egiten ari direna astakeria hutsa dela garbi ikusteko.

Horrez gain, auziperatuta dauden batzuk nire lankideak dira eta horrek ere nolabaiteko gertutasuna sortzen du.

Zer esango zenioke Orioko herriari?

Badakit oso zaila dela gaur egun halako zerbaitetan parte hartzea. Ni neu ez naiz eta oso parte hartzailea. Baina nik eskatu nahi dudana zera da: benetan laguntzeko prest dagoena gugana hurbildu dadila, *Egunkariaren* aldeko batzordea eratu dugu eta bertan lan egiteko guztiei ireki-ko zaizkie atek.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarauz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarauz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUZ - DONOSTIA

Zarauz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarauz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarauz	Zarauz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarauz	Zarauz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koardro ardigun ordutetako autobusak Urbielatik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koardro lurraldeko ordutak lanurteetako (laneguna) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darma. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zenbat bidai daude:

www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5280 zenbakia

ITSASOA

AZAROA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
13	01:28 eta 13:51	07:24 eta 19:58	
14	02:16 eta 14:39	08:14 eta 20:43	
15	02:59 eta 15:22	08:59 eta 21:24	
16	03:39 eta 16:02	09:41 eta 22:02	
17	04:16 eta 16:40	10:22 eta 22:39	
18	04:52 eta 17:16	11:02 eta 23:16	
19	05:28 eta 17:52	11:41 eta 23:53	
20	06:05 eta 18:29	12:20 eta _____	
21	06:43 eta 19:07	00:31 eta 13:00	
22	07:25 eta 19:50	01:12 eta 13:43	
23	08:13 eta 20:41	01:57 eta 14:31	
24	09:09 eta 21:47	02:50 eta 15:29	
25	10:15 eta 23:01	03:55 eta 16:36	
26	11:23 eta _____	05:06 eta 17:42	
27	00:08 eta 12:26	06:12 eta 18:40	

ZAINZAKO BOTIKAK

AZAROA

- 13an, Lasa.
- 14an eta 15ean, Iriarte.
- 16an, Zulaika.
- 17an, Larrañaga.
- 18an, Azaldegi.
- 19an, G. Artiñano.
- 20an, Zulaika.
- 21ean eta 22an, Larrañaga.
- 23an, G. Artiñano.
- 24an, Azaldegi.
- 25an, Zulaika.
- 26an, Iriarte.
- 27an, Mutiozabal.
- 28an eta 29an, Etxeberria.
- 30ean, Azaldegi.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarauz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea,17. 943 83 23 98 Zarauz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarauz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarauz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarauz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarauz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarauz

ERAKUSKETA

■ Orion, azaroaren 30a arte, Tomas Esnaolaren, Iñaki Astiazaranen, Juan Luis Mendizabalaren eta Manu Urbietaren pintura eta eskultura erakusketa kultur etxean.

IRTEERA

■ Azaroaren 15ean, Ondarroa-Lekeitio txangoa Talai Mendik antolatuta. Izena emateko azken eguna azaroaren 13a, Uranga burdindegian.

■ Azaroaren 25ean, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, eskurtsioa Arantzazura; bazkaria Elorrion eta Gazteizera.

IKASTAROA

■ Orion, Ikastolak antolatuta, haur masaje ikastaroa 5 saiotan, 2008an jaiotako haurrak dituzten gurasoentzat. Irakaslea Nerea Mendizabal. Astelehenetan, azaroaren 17tik abenduaren 22a arte, Ikastolan. 17:00etatik 18:30era.

**SANROMANAK
ALTZOLA AUZOAN**

■ Azaroaren 18an, asteazkenarekin, 11:00etan, meza nagusia eta ondoren, hamaiketako. Eguerdian, bazkaria, Agurtzane eta Elustondorekin. Afal

**Sanmartinak Ortzaikan**

Azaroaren 13an, ostiralean, mus txapelketa jokatu da Oliden jatetxean, 22:00etan hasita.

Hurrengo egunean, larunbatean, oilasko biltzera aterako dira, goizeko 06:00etan, eta 21:30ean, bertso afaria egingo dute trikitilariekin. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio arituko dira bertsotan.

Festa bukatzeko, igandean, herri kirol saioa izango da Heldu! taldearekin eta, tartean, sorpresak ere izango direla esan digute. Jarraian, sanmartin jaietako IX. ikurrinaren estropada jokatu da eta, gero, Oliden jatetxean bailarakoen eta jubilatuen bazkaria egingo dute, trikitilariak lagunduta.

ondoren erromeria.

■ Azaroaren 21an, larunbatean, txerri boda. Gauean, erromeria

Agurtzane eta Elustondorekin. Goizaldean baratxuri sopa.

■ Azaroaren 22an,

igandearrekin, 11:00etan, meza nagusia eta ondoren, hamaiketako. Eguerdian, bazkaria eta arratsaldean txokolate jana. Afal ondoren, erromeriaren jarraipena.

KONTZERTUA

■ Orion, azaroaren 19an, santa Zeziliaren omenezko kontzertua, Danbolin musika eskolak antolatuta. 18:30ean, kultur etxean.

KALEJIRA

■ Orion, azaroaren 19an, santa Zeziliaren omenezko kalejira, Danbolin musika eskolak antolatuta. 17:00etan.

BILERA

■ Orion, azaroaren 16an, sanikolasak antolatzeko bilera irekia. 19:00etan, kultur etxean.

ELKARRETARATZEA

■ Orion, azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna. 20:00etan, kontzentrazioa plazan. Gero, afaria. Izena emateko Gabonen.

MAHAI-INGURUA

■ Orion, azaroaren 23an, emakumeenganako erasoak hizpide. 20:00etan, kultur etxean.

AZOKA**Iragarkietarako
txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

GALDUTAKOAK

■ Umearen urrezko katea galdu dut. Izena eta jaiotze data jartzen ditu: Eneko, 23-06-98. Norbaitek aurkituz gero deitu. 943 83 39 20 (Goxoki).

eskola tartean. 650 651 613
■ Kate bat aurkitu dut Sarasua atzeko zaborrontzian. E-L. 25-9-92. 650 651 613.

■ Audifono bat azaldu da Aiako Iturriozena tabernan. Jabea bertatik pasa dadila jasotzera.

LAN BILA

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 042 732.

■ Ekitaldietako estrukturalak jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zaintetan esperientzia dut eta badakit sukaldean ere. Tf: 639 409 421.

■ Etxeko lanak egiteko emakume eskarmentuduna. 637 905 695 (Celestine).

■ Edadetuak zainduko nituzke arratsalde eta asteburuetan. Eskarmentuduna. 600 745 686.

■ Ingenieritza teknikoko ikasketak eginak ditut eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat. Deitu: 608 164 971.

■ Erizain laguntzaile eta geriatrian titulatu naiz. Edadetuak zainduko nituzke. Eskarmentuduna. 663 914 329 (Kristina).
■ Edozein lan hartuko nuke: 639 409 421.

ALOKAIRUA

■ Pisu estreinatu gabea dut alokatzeko Armendigainen, Aian. 3 logela, bi bainu gela, garajea... 629 680 410.

SALGAI

■ Duplex berria Goiko-kalean. Hiru logela, sukalde osatua, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653 742 576.

